



“HEMEN EZ DUGU ELIKAGAIK XAHUTZEN. NO DESPILFARRAMOS” KANPAINA

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1. Aiarako Kuadrillak, 5 udalekin batera, AEKO (Aiarako Enpresen Koordinaziorako Federazioa) eta Zabaia Landa Garapenerako Elkarateak zozketa bat antolatu dute **“Hemen ez dugu elikagaiak xahutzen. No despilfarramos”** sentsibilizazio-kanpainaren esparruan.
2. Hauek dira sariak:
 - **50 €-ko 12 bonu**, Establezimendu Berdeen Sareko elikadura-saltokietan kontsumitzeko
 - **50 €-ko 8 bonu**, Establezimendu Berdeen Sareari atxikitako ostalaritza-establezimenduetan kontsumitzeko.
3. Zozketan parte hartzeko, 18 urte baino gehiago izan behar dira, eta Aiarako Kuadrillako elikagai- eta ostalaritza-establezimenduek, Establezimendu Berdeen Sareari atxikita daudenek, bezeroen artean banatzen dituzten txarteletako bat eduki.
4. **2023ko ekainaren 21ean, 12:00etan**, sariak zozketatuko dira Aiarako Kuadrillaren egoitzan. Gainera, **10 txartel** gehiago aterako dira (6 janari establezimenduetarako eta 4 ostalaritzarako), erreserban geldituko direnak.
5. Txartel irabazleen zenbakiak Aiarako Kuadrillaren webgunean (www.cuadrilladeayala.eus/eu/) eta atxikitako establezimenduetan argitaratuko dira.
6. Txartel irabazleak dituzten pertsonak **AEKOn (Zumalakarregi etorbidea 33, 1. esk., Audio - telefonoa: 946-72 28 01- jendaurreko ordutegia: 9:00-14:00 astelehenetik ostiralera)** trukatu beharko dituzte bonu baten truke, erosketa edo zerbitzua egiterakoan eman beharko dutena. 50 €-ko bonua **establezimendu bakar batean** erabili ahal izango da (kontsultatu Establezimendu Berdeen Sareko saltoki, jatetxe edo tabernen zerrenda kuadrillaren webgunean), eta **gehienez 2 aldiz** erabili ahal izango da, guztira **50 €-ko gastuarekin**.
7. Hauek dira **kontuan hartzeko datak**:
 - Txartelen trukea AEKOn: **ekainaren 26tik uztailaren 3ra**



- **2023ko uztailaren 4tik aurrera**, txartel sarituren bat trukatu gabe badago, **erreserba-zenbakiak** ordezkatuko dute (ikus 4. puntuak). Txartel horiek **uztailaren 4tik 10era** trukatu ahal izango dira AEKOn.
 - AEKOn bonuak ostalaritzako denda eta lokaletan trukatzeko epea: **uztailaren 17ra arte**.
8. Sariak ezin dira diruz trukatu, ez eta hemen zehaztutakoak ez diren beste zerbitzu edo produktu batzuegatik ere.
 9. Irabazleek ematen dituzten datu pertsonalak Aiarako Kuadrillaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira. Datu horiek konfidentzialtasunez tratatuko dira, Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera; horrenbestez, erabiltzaileek datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko, eramateko eta tratamenduaren arduradunari aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte.
 10. Zozketaren irabazleek baimena ematen diote Aiarako Kuadrillari bere izenak eta irudia argitara ditzan oinarri hauetan ezarritako ondorioetarako, eta datu horiek ezin dira beste helburu baterako erabili.
 11. Aiarako Kuadrillak eskubidea du zozketaren baldintzak aldatzeko, zozketaz kanpoko arrazoiengatik.
 12. Parte hartzeagatik, parte-hartzaile guztiek zozketaren oinarri hauek onartzen dituzte.
 13. Zozketaren oinarriak Aiarako Kuadrillaren webgunean daude argitaratuta (www.cuadrilladeayala.eus/eu/)